

**ERABAKIA, 2022ko AZAROaren 2koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN, 2021-2023 TARTERAKO ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMA BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAK (NEXT GENERATION EU MARIA ZAMBRANO) FINANTZATUTA, BEHIN BETIKO ERABAKITZEN DUENA.**

2022ko maiatzaren 3an, Espainiako unibertsitate sistema 2021-2023rako birkualifikatzeko laguntzen bigarren deialdia argitaratu zen Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean, Europar Batasunak (Next Generation EU María Zambrano) finantzatuta.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2022ko urriaren 6an, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko erabakia argitaratu zen eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, Epaimahaiak 2022ko urriaren 17ko bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ditu eta, ondorioz, behin betiko erabakia egiteko proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean argitaratzeko.

Epaimahaiak partzialki balioetsi ditu MAZAM22/17, MAZAM 22/05, MAZAM 22/19 eta MAZAM 22/11. kode eskaerak dituzten alegazioak. Epaimahaiak gaitzetsi ditu MAZAM22/26 eta MAZAM22/22 kode eskaerak dituzten alegazioak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

## ERABAKI DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

**Bigarrena.-** Ebaluazio Batzordeak partzialki balioetsi du MAZAM 22/17 kodeko eskabidean aurkeztutako alegazioa, eta uste du eskaera 85 puntutik 89 puntura igaro behar dela. MAZAM 22/05 eskaeran partzialki balioetsi da aurkeztutako alegazioa, eta uste da eskaera hori 86 puntutik 87,5 puntura igaro behar dela. Ebaluazio Batzordeak partzialki baietsi du MAZAM 22/19 kodeko eskabidean aurkeztutako alegazioa, eta uste du eskaera hori 86,5 puntutik 87,5 puntura igaro behar dela. MAZAM 22/11 eskaeran zati batean baietsi da eskabideak aurkeztutako alegazioa, eta uste da eskaera 79 puntutik 84,5 puntura igaro behar dela.

**Hirugarrena.-** 2022ko azaroaren 3tik 9ra bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonek Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten eskatutako agiriak, haren webgunean eskuragarri daudenak. Atzerapen bat eskatu nahi dutenek epe bera izango dute egiteko. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute helbide honetara: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) 24 hilabeteko kontratuen kasuan, hasiera-data ezin izango da 2023ko urtarrilaren 1a baino geroagokoa izan.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola**

**Laugarrena.**- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

**Bosgarrena.**- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022ko azaroaren 2an.

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación

**I.ERANSKINA**  
**EMANDAKO ETA UKATUTAKO ESKAEREN BEHIN BETIKO EBAZPENA**

KODEA	NAN	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN BETIKO EBAZPENA
MAZAM22/06	Y0529920Z	98	<b>BORONDATEZKO UKOA</b>
MAZAM22/01	Y1239660C	96	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/02	A28420331	97	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/27	AQ401437	95	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/18	50217248Z	93	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/07	YB6020761	92	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/16	71139734K	91	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/23	78954720K	91	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/15	C559087	90,5	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/03	53615249H	89	<b>BORONDATEZKO UKOA</b>
MAZAM22/17	44565154D	89	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/08	520697307	88	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/13	44333647C	88	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/19	50547922V	87,5	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/05	54063731T	87,5	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/25	78877155N	87	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/22	S20963069	86,5	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/26	A84999915	86	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/21	29131914	86	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/11	G36524118	84,5	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/10	U25366558	84	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/12	122096255	83	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/24	J4847104	83	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/09	16079315S	81,5	<b>EMANDAKOA</b>
MAZAM22/20	30663785R	67,85	<b>UKATUTAKOA</b>
MAZAM22/14	28832365W	72	<b>UKATUTAKOA</b>
MAZAM22/04	52991056E	63,5	<b>UKATUTAKOA</b>

## II. ERANSKINA

### EMANDAKO ETA UKATUTAKO BEHIN-BEHINEKO EBAZPENAREN AURKA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA

KODEA	NAN	BERRIKUSKETAREN EMAITZA
MAZAM22/26	A84999915	Ez da onartu Memoriaren atalari buruzko alegazioa. Egonaldiaren onurek UPV/EHUren, ikastetxearen eta eskatzailea dagoen taldearen ikerketa- eta irakaskuntza-jardueran eragina izan dezaketela egiaztatzen duen justifikazio egokia.
MAZAM22/22	S20963069	Alegazioa ez da onartu.
MAZAM22/17	44565154D	Alegazioa onartu da eta A1-CVA (22tik 23ra igaro da), C1 (7,5etik 9ra igaro da) eta C2 (7,5etik 9ra igaro da) atalen balorazioa aldatu da.
MAZAM22/05	54063731T	Alegazioa onartu da, eta aldatu egin da Nire egonaldiak UPV/EHUren, ikastetxearen eta taldearen ikerketa- eta irakaskuntza-jardueran ekar ditzakeen onuren ebaluazioa izeneko atalari emandako balorazioa, 7,0 puntutik 8,5 puntura igaro baita.
MAZAM22/19	50547922V	Alegazioa onartu da, "Nire egonaldiak UPV/EHUren, ikastetxearen eta taldearen ikerketa- eta irakaskuntza-jardueran ekar ditzakeen onuren ebaluazioa" izeneko atalari emandako balorazioa aldatuta (6,5 puntutik 7,5era).

## II. ERANSKINA

### EMANDAKO ETA UKATUTAKO BEHIN-BEHINEKO EBAZPENAREN AURKA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA

MAZAM22/11	G36524118	Alegazioa onartu da eta atal hauen balorazioa aldatu da: "CVA egonaldiak ikerketa-zentroetan" (1etik 5era igaro da), "Historial grupo. Ikerketa zientifikoaren kalitatea: argitalpenak eta txostenak "(lehen 14,5) eta" Memoria. Egonaldiaren justifikazio egokia eta bere ikerketa- eta irakaskuntza-jardueran eskatzailearentzat lortuko duen onura "(lehen 8,5 puntu, orain 10). Beraz, ebaluazioa 84,5 punturekin geratu da.
------------	-----------	--

### III. ERANSKINA

## UPV/EHU<sup>n</sup> AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora, pdf formatuan, 2022ko azaroaren 3tik 7ra bitarteko epean:

- a) Deialdi honen esleipendun gisa betekizunen onarpen dokumentua.
- b) Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- c) Doktore tituluaren kotokopia konpultsatua edo tituluari dagokion homologazio agiria.

Lanean hasteko da **2022ko azaroaren 21etik aurrera** izango da.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.**

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitzan).

Dokumentazioa aurkezteari eta kontratazio prozesuari buruzko kontsultak [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora bidali behar dira.